

ZAS!

Zurumurruen | Red Vasca
Aurkako Sarea | antiRumores



Migrazio Kontuak
¿Chismes migratorios?

Gernika-Lumo




01.

Bizkaia

01 Nola dago osatuta atzerritar biztanleria?

2019an, azken errolda-datu ofizialen arabera, **Bizkaian 1.152.651 pertsona bizi ziren**. Eta horietatik, **1.036.965 Espainian jaiotakoak ziren eta espainiar nazionalitatea zuten**. Bizkaiko biztanleria osoaren % 90 dira; eta, horrenbestez, Bizkaian bizi diren hamar pertsonatik bederatzia autoktonoak dira, bertakoak esaten zaienak. *1. grafikoa.*



1. Grafikoa

Bizkaiko biztanleriaren banaketa, **2019ko behin betiko errolda, datu absolutuak**

Baina badira **7.132** pertsona autoktono **Bizkaian jaiotakoak** (edota inguruan jaiotakoak) **izan arren, atzerritar nazionalitatea dutenak**. Bertakoak dira, autoktonoak, hemen jaio direlako. Gehienak espainiar nazionalitatearik ez duten etorkinen seme-alabak dira. Oro har, afrikarren ondorengoak izan ohi dira, bai Saharaz hegoaldekoak, bai Ipar Afrikakoak. Izan ere, horiei kostatzen zaie gehien espainiar nazionalitatea lortzea: gauzak ondo joanda ere, hamabost urte baino gehiago behar dituzte nazionalizatzeko.

Eta alderantzizko egoeran **37.508 pertsona** daude: atzerrian jaiotakoak izan arren, **espainiar nazionalitatea dute** gaur egun. Oro har, hemen bizitzen hamar urte baino gehiago daramaten Latinoamerikako pertsonak izan ohi dira, eta horrek


nazionalizatzeko aukera eman die, Latinoamerikan jatorria duten pertsonen izapideak eta baldintzak arinagoak zaizkielako. Bizkaiko biztanleria osoaren % 3,3 dira. Immigrazio gustukoena da, hobetsia. Azkenik, atzerritarak ditugu, gaur egun zentzu garbian atzerritarak izango liritekeen pertsonak, atzerrian jaio eta oraindik atzerritarak direnak, nahiz eta denborak aurrera egin ahala nazionalizatzen joango diren. Nahiz eta, esan dugun bezala, jatorri batzuetakoek beste batzuetakoek baino lehenago lortuko duten. Bizkaiko biztanleria osoaren % 6,2 dira.

Oraindik ere atzerriko nazionalitatea duen edo atzerrian jaio den populazio-mota hori guztia atzerritar jatorriko biztanleriatzat hartzen dugu, dibertsitatearen kudeaketa doiago eta zentzudunago bat egiteko.

Nazionalitatea	Jaiolekua		Guztira
	Espainiarra	Atzerrian	
Espainiarra	1.036.965 [90,0%]	37.508 [3,3%]	1.074.473 [93,2%]
Atzeritarra	7.132 [0,6%]	71.046 [6,2%]	78.178 [6,8%]
Guztira	1.044.097 [90,6%]	108.554 [9,4%]	1.152.651 [100%]

1. Taula
Bizkaian bizi den biztanleriaren banaketa, jaioterriaren edo nazionalitatearen arabera, **kopuru absolutuak eta ehunekoak, 2019**

Zer esan nahi du horrek? **Atzeritar jatorriko immigrazioa –dela jaiotzaz**, dela nazionalitatez atzeritarra dena– Bizkaia etorri denean, hemen geratzera, betirako hemen bizitzera etorri dela. Eta, izan ere, Bizkaiko **biztanleria osoaren % 10** dira jadanik. Kopuru horrek gora egingo du datozen urteetan, ustekabeko gertaerak izan ezik. Ez neurritz kanpo, baina bai etengabe eta pixkanaka. Gaur egun, 115.700 pertsona inguru dira ezaugarri horiek dituztenak. *1. Taula.*



2. Grafikoa
Atzeritar jatorriko biztanleak Bizkaian, jaioterriaren eta/ edo nazionalitatearen arabera, **2019, kopuru absolutuak**


Hazkunde kuantitatibo horretaz gain, eraldaketa kualitatiboa ere agerikoa da: jada nazionalizatuta dauden pertsona asko ditugu, eta beste batzuk hemen jaioak baina atzeritar nazionalitatea dutenak (*2. grafikoa*). Egoera-aniztasun horrek guztiak gero eta tratamendu errealistagoa eta kasu bakoitzera egokituagoa eskatzen du, hemen geratzera etorri den immigrazioa delako. Hori aitortzea, ondo zehaztutako ibilbideen bidezko harrera egitea, funtsezkoa da gero eta dibertsitate handiagokoa izango den etorkizunerako. Ez da berdina izango Bizkaian jaiotako eta atzerriko nazionalitatea duen pertsona baten gizarteratzea eta kultura-integrazioa eta, adibidez, atzerrian jaio, helduaroan iritsi eta nazionalizatu egin den pertsona batena. Era berean, pertsona bat Bizkaian jaio eta espainiar nazionalitatekoa izanagatik, gurasoek ere nazionalitate hori dutelako, ez ditu desagerrarazten pertsona horren sozializazio-

prozesuan eta aniztasunaren tratamenduan pertsona horren jatorrizko lekuaren kultura-ereduaren eraginak.

Atzeritar jatorriko biztanleriari dagokionez, hurrengo grafikoa ikus dezakegu 2014. eta 2015. urteen artean geldialdi bat egon zela, baita galera txiki bat ere, eta gero igo egin zela 2016tik aurrera. Ordudanik, urtetik urtera hazten ari dira fluxuen ondoriozko stockak (*3. grafikoa*). Txosten hau idazteko unean, konfinamendu-aldian gaude, eta, beraz, finkatzen ari zen errealitate hori zalantzakoa bihur daiteke. Garapen logikoari eusten badiogu, zenbakiak gora egin beharko lukete. Dena den, egoera berri honek migrazio-proiektu askori eragingo die, eta ez dakigu ziur zer eragin izango duen etorkizunean. **Niels Böhr** Fisikako Nobel saridunak esan zuen bezala, iragarpenak zailak dira eta, batez ere, etorkizunari buruzkoak.


3. Grafikoa

Atzerritar jatorriko biztanleriaren bilakaera Bizkaian, **2007-2019**, erreferentzia urteko urtarrilaren 1ean, **datu absolututan**



4. Grafikoa

Atzerritar jatorriko biztanleriaren bilakaera Bizkaian, jaiotzaren eta nazionalitatearen arabera, **2007-2019**, **datu absolutuak**




Dena den, 4. grafikoa aztertuta, geure buruari galde diezaiokegu zer ikas dezakegun aurreko urteetan bizi izan direnen moduko fluxu- eta errefluxu-prozesu horretatik: Espainian jaiotako biztanleria eta nazionalizazioak hazi ahala, jaisten ari zen zuzenean atzerritik etorritako biztanleria. 2016. urtetik denak hazi dira aldi berean. Pentsatzekoa da 2020an beste geldialdi bat izango dela immigrazio zuzenetan, agian handia, eta gora egingo duela Espainian jaiotakoen eta nazionalizatutakoen kopuruak. Hala ere, 2021. urtea igaro samar dagoen arte edo 2022ra arte ezin izango ditugu joera horiek egiaztatu.

02 Eta Bizkaia barruan, nola banatzen da atzeritar biztanleria?


Atzeritar jatorriko biztanleria Bizkaiko eskualdeen arabera nola banatzen den aztertzeko, Bilbo Handia eskualdea bere azpieskualde historikoetan azpibanatzea erabaki dugu. Izan ere, eskualde hori barne-aniztasun handikoa da, eta Bizkaiko biztanle guztien % 75 hartzen du, eta horregatik deritzogu egokia banatzea. Kasuren batean, banaketa hori osatzeko, Bilboko barrutiak era hartu ditugu aintzat. Izan ere, biztanleriaren % 30 Bilbon bizi denez, migrazio-fenomenoa zehatzago eta aberastasun soziologiko handiagoz ikus daiteke.

Hasteko, komeni da biztanleria osoaren eta atzeritar jatorriko biztanleriaren banaketa alderatzea, haien kokalekuan zer desberdintasun dauden ikusteko (5. grafikoa). Ikus dezakegu, oro har, asimetria handienak **Bilbon** gertatzen direla: **populazio osoaren % 30,3 bizi da, eta atzeritar jatorriko populazioaren % 38,7**. Ezkerraldean, Meatzaldean edo Hego Uriben, berriz, asimetria nabari da, baina aurkakoa.

Gainerako eskualdeetan maila txikiagoko aldeak daude. Bestela esanda, **atzeritar jatorriko hamar pertsonatik ia lau Bilbon bizi dira**.



Alde horiez gain, garrantzitsua da erreparatzea Bizkaiko atzeritar jatorriko lau biztanletik hiru Bilbon –% 38,7–, Ezkerraldean –% 16,9–, Eskualdean –% 12,3– eta Durangaldean –% 8,6– bizi direla.




6. Grafikoa
Biztanleria osoaren eta atzerritar jatorriko biztanleriaren banaketa, Bilbo Handia azpi-eskualdeen eta barrutien arabera, **2019, ehunekoak**

Aurreratu dugun moduan (6. grafikoa), panorama argiagoa da atzerritar jatorriko biztanleriaren banaketan Bilboko barrutiak gehitzen ditugunean, horrela argi ikusten baitugu haietako batzuek atzerritar jatorriko biztanleriaren kokapenean hartzen duten garrantzia. Bilboko zenbait barrutitan, hala nola Ibaiondon (Bizkaian bizi diren atzerritar jatorriko pertsona guztien ia % 10 biltzen dira hor) edo Errekalden (% 7,5), Bizkaiko gainerako eskualdeetan eta haietako udalerrri handienetako askotan baino ehuneko handiagoa bizi da, pare batean izan ezik: Barakaldo (% 9,1) eta Getxo (% 7,1).

Zifra absolututan, 7. grafikoa, unitate-multzo horiek guztiak txikienetik handienera banatzeak erakusten du **migrazio-fenomenoa**, nola ez, oso **fenomeno urbanoa dela, eta nahiko zentratuta** dagoela Bilbon, nahiz eta zenbait egoera interesgarri dauden bolumenaren eta aurreko migrazioen arabera. Barakaldo izan ezik, Ezkerraldeko gainerako udalerririk edo Meategiak beraiek ez dira, erlatiboki, oso erakargarriak atzerritar jatorriko biztanleentzat. Era berean, interesgarria da ikustea atzerritar jatorriko


immigrazioari dagokionez eskuinaldeak garrantzia hartzen duela, Getxo buru dela. Jatorriak aztertzen ditugunean sakondu ahal izango ditugun aldakuntza txiki horiek guztiek adierazten digute hirurogeiko hamarkadako ekonomiak eta gaur egungoak oso elementu komun gutxi dituztela. Orduan, industria zen nagusi, eta Ezkerraldea etorkinez bete zuten. **Gaur egun, garrantzitsuak dira etxeko eta zaintzako zerbitzuak eta zerbitzuen sektorea bere osotasunean, eta, horrexegatik, garrantzitsua da Bilbo, haren barrutietako batzuk eta herri jakin batzuk.** Zenbait leku kokaleku dira, Ibaiondo edo Begoña kasu, eta beste batzuk, berriz, jardueraren helmuga, Getxo eta Abando barrutia, kasu. Izan ere, **migrazioari** buruz zabaltzen den irudia mugimendu kaotiko batena den arren, **tokian tokiko beharrei erantzuten die beti.** Eta, horrela, garai-aldaketetan eredu ekonomikoaren aldaketak gertatzen diren bezalatsu, aldatu egiten da leku horretan kokatzen den immigrazioaren osaera ere. Gizarte-egitateek beti dituzte azpiko kausa batzuk, batzuetan ikusezinak, baina kausa horiekin bat datozen ageriko efektuak eta ondorioak dituzte.



Atzerritar jatorriko biztanleriaren jatorriak

Euskal Autonomia Erkidegoan, atzerritar jatorriko biztanleen jatorriari dagokionez, Latinoamerikako pertsonak dira nagusi. Eta joera hori biziago da Bizkaian gainerako lurralde historikoetan baino. Hori dela eta, ikusten dugu, kontinenteen arabera, Bizkaiko atzerritar jatorriko biztanleriaren erdia baino gehiago latinoamerikarra dela: % 51,4 (8. grafikoa). Ia antzeko ehunekoetan datoz Europatik –% 20,8– eta Afrikatik –% 20,6–, eta, azkenik, Asiatik dator populazio horren % 7. Ozeaniaren eta herrigabeen populazioa ia hutsala da, % 0,3. Gipuzkoan, gainerako lurralde historikoetan ez bezala, Amerikako biztanleria urriagoa da, eta Europakoa, berriz, gehiengo da. Bizkaiak, bere pisu demografikoagatik, immigrazioaren euskal ereduaren parametroak baldintzatzen ditu

8. Grafikoa
Jatorriz atzerritarra diren biztanleen jatorria Bizkaian, kontinentearen arabera, **2019, ehunekoak**





Azpiheremuka zehaztuta (9. grafikoa), atzerritar jatorriko biztanleriaren jatorria ongi zehaztu dezakegu, batez ere Amerikaren eta Afrikaren ekarpenari dagokienez. Afrikako populazioari erreparatuz, populazioaren ia % 12 Magrebetik dator, eta gainerako % 8,6a Saharaz hegoaldeko Afrikatik. Amerikarrei erreparatuz, gero eta garrantzi handiagoa dute duela gutxi Erdialdeko Amerikatik etorri eta hemen kokatutakoak, Nikaragua eta Honduras buru daudela (% 9,5). Hala ere, **hamar pertsonatik lau Hego Amerikatik datoz.**

Azpiarloka berrosatze horiek garrantzitsuak dira; izan ere, irizpide geografiko hertsia soziologikoki garrantzitsua ez bada ere, horren azpian dagoen joeren dinamika garrantzitsua dela adierazten digute. Hala, Kubak -1.982 pertsona- eta Dominikar Errepublikak -1.293 pertsona- atzerriko immigrazio-fluxuak hasi zirenetik biztanleria-ekarpena egin dutenak badira ere, gaur egun, Nikaraguak (ia 5.000 pertsona) eta Hondurasek (2.044 pertsona) hartu dute lekukoa. Gainera, geroago ikusiko dugun bezala, euskal immigrazio-ereduaren ezaugarriek azaltzen dituzte migrazio-fluxuen osaeraren aldaketa horiek.

Europaren kasuan, esan behar da ia % 10 errumaniar jatorrikoa dela.

9. Grafikoa
Jatorriz atzerritarren diren biztanleen jatorria Bizkaian, nazionalitate-eremuen arabera, **2019, ehunekoak**



10. Grafikoa
Jatorriz atzerritarren diren biztanleen osaera Bizkaian, eskualdeen arabera, **2019, ehunekoak.**

10. Grafikoa
Jatorriz atzerritarren diren biztanleen osaera Bizkaian, eskualdeen arabera, **2019, ehunekoak.**

Bizkaian eredu desberdinak daude immigrazioaren osaerari dagokionez eskualdeka, lurraldearen osaera orokorrarekin alderatuz gero (10. grafikoa). Esan bezala, **populazio gehiena Ameriketatik dator**. Baina jatorri horretako biztanleen presentzia handiagoa da Ezkerraldean eta Meatzaldean –% 52–, Txorierrin –% 54–, Bilbon –% 56– eta Plentzia-Mungian –% 57–, eta, batez ere, Eskuinaldean –% 64–. Intentsifikazio hori bi fenomenorekin lotuta dago: 1) Bilbo inguruan biztanle amerikarren tasa handiagoa dago, eta 2) eskuragarri dauden okupazio-sektoreekin. Askotan, Bilbotik hurbil dauden herriak bizilekuak baino ez dira, eta, horregatik, biztanle amerikarren ehuneko handiagoa dago Bilboren inguruko udalerrietan.

Bigarrenik, udalerrri horietan bertan, baina batez ere Eskuinaldean eta Bilbon, ugaritu egin dira okupazio feminizatuak, etxeko lanekin eta zaintzarekin lotutakoak, bai eta zerbitzuen sektorearekin lotutakoak ere.

Amerikarren presentzia txikituz doa Bilbotik Bilbo Handian sartzen ez diren gainerako eskualdeetarantz urrundu ahala. Horietan, zati batean bederen, **Europako edo Afrikako biztanleek ordezkatzan dituzte** haiek. Bada datu interesgarri bat: Errumaniako biztanleria Durangaldeak eta Gernika-Bermeo eskualdeek osatutako ardatzean kokatzen da, bereziki. Azkenik, bai Durangaldean, bai Arratia-Nerbioi eskualdean, Afrikatik etorritako biztanleak gailentzen dira. 2. taula.

	Arratia-Nerbioi	Durangaldea	Enkarterriak	Gernika-Bermeo	Markina-Ondarroa	Plentzia-Mungia	Bilbao	Ezkerraldea	Meatzaldea	Nerbioi Garaia	Eskuinaldea	Asua Harana	Bizkaia													
EB25	127	6	834	8	323	11	275	6	204	7	780	16	3.141	7	1.364	7	232	13	528	8	1.516	11	148	9	9.472	8
EB28	347	17	1.894	19	538	19	1.570	33	217	8	201	4	2.618	6	1.809	9	105	6	1.080	17	865	6	134	8	11.378	10
G. Europa	23	1	297	3	46	2	242	5	74	3	199	4	1.149	3	450	2	71	4	217	3	382	3	55	3	3.205	3
Magreb	595	29	1.694	17	533	19	349	7	299	11	480	10	4.738	11	2.822	14	236	13	994	15	765	5	283	17	13.788	12
Gainerako África	106	5	1.565	16	235	8	298	6	757	27	219	4	4.274	10	1.623	8	108	6	430	7	304	2	82	5	10.001	9
Iparamerika	26	1	137	1	73	3	217	5	122	4	158	3	826	2	174	1	33	2	75	1	366	3	49	3	2.256	2
Zentroamerika	135	6	689	7	325	12	295	6	280	10	451	9	4.585	10	1.824	9	220	13	485	7	1.565	11	174	10	11.028	10
Hegoamerika	584	28	2.353	24	641	23	1.164	25	677	24	2.172	44	19.607	44	8.145	42	666	38	2.245	34	7.213	51	678	40	46.145	40
Txina	17	1	165	2	35	1	96	2	41	1	112	2	2.307	5	683	4	28	2	266	4	370	3	39	2	4.159	4
Pakistan	40	2	215	2	29	1	62	1	42	2	31	1	443	1	347	2	17	1	156	2	92	1	3	0	1.477	1
Gainerako Asia	54	3	79	1	16	1	45	1	27	1	79	2	1.025	2	227	1	33	2	44	1	764	5	24	1	2.417	2
Guztira	2.081	100	9.942	100	2.814	100	4.705	100	2.786	100	4.908	100	44.759	100	19.509	100	1.753	100	6.526	100	14.226	100	1.677	100	115.686	100

● Ehunekoak

2. Taula

Bizkaiko eskualdeak, Bilboko azpieskualdeak eta nazionalitate-eremuak, **2019, zifra absolutuak eta ehunekoak**

04 Fluxuen feminizazioa funtsezko beste ezaugarri bat da

Bizkaian bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen % 53 emakumeak dira. Egia da migrazio-prozesuak aurrera egin ahala biztanleria sexuaren arabera orekatzeko joera dagoela, familia berrelkartzeko prozesuak gauzatzen diren heinean. Dena den, ikuspegi kuantitatibo hutsetik migrazioen feminizazioaz ari garenean, adierazi nahi dugu **gaur egun emakumeak direla mugimendu horietako askoren protagonistak**, ekintzaileak eta aitzindariak, historian aurretik gertatu denarekin alderatuta. Ikuspegi kualitatibotik, Euskadin genero-

arrazoiengatik emakumeentzat izan diren eta dauden enplegu-sektore eta-merkatuei emandako erantzuna da feminizazioa. Euskadik nekazaritza intentsiboa izango balu, konposizioa beste mota batekoa izango litzateke. Euskadi osoak edo Bizkaiak Gipuzkoako Goierriko industria-sektorearen jarduera-tasa izango balitu, joera maskulinoa eta errumaniarra izango litzateke, ez latinoamerikarra eta emakumezkoa. Beharrian mota bakoitzari biztanleriaren hautapen-mota batek erantzuten dio (3. taula).

Jaiolekua / Nazionalitatea	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Espainia / Atzerritarra	3.679	3.453	7.132
%	51,6	48,4	100
Atzerria/ Espainiarra	15.640	21.868	37.508
%	41,7	58,3	100
Atzerria / Atzerritarra	35.031	36.015	71.046
%	49,3	50,7	100
Jatorri atzerritarra	54.350	61.336	115.686
%	47,0	53,0	100


3. Taula

Atzerritar jatorriko biztanleria, nazionalitatearen/ sorterriaren eta sexuaren arabera, **2019, zifra absolutuak eta ehunekoak**

Gizartean errotutako ideia bestelakoa bada ere, azpimarratu behar da **immigrazioa aukeratu egiten dela**, gogokoena iristen dela, edo, hobeto esanda, behar dena. Nolabaiteko **dei-efektua** egon daitekeela ukatu gabe, benetan dagoena beste gauza bat da: euskal gizartearen **premia-efektuarekiko** doikuntza zehatz bat, kokatzen den biztanleriaren eta xede-gizartean estaldura posiblez ez duten lan-premien arteko lotura bat. Helmugatik egiten den hautu hori hain da erabakigarria, ezen Bizkaian kokatutako atzerritar jatorriko biztanleriaren tipologia desberdinen sexuaren arabeko banaketa aldatu egiten baita (11. grafikoa). Besteak beste:


1. hemen jaio baina atzerriko nazionalitatea duten pertsonak; horien artean % 51,6 gizonezkoak dira, eta % 48,4 emakumezkoak (ausaz, esan genezake); eta

2. Euskadin bizi diren pertsonen artean, atzerritarrak direnak oraindik (% 50,7) edo nazionalizatu egin direnak; horietatik % 58,3 emakumeak dira.




11. Grafikoa
Atzerritar jatorriko biztanleria, nazionalitatearen/
sorterriaren eta sexuaren arabera, **2019, ehunekoak**

Euskadiko immigrazio-eredua feminizatua da, eta Bizkaikoa ere bai. Hori azaltzeko, ikus ditzagun datu orokor batzuk, atzerritarren jatorrizko eremuen feminizazio-maila aztertzeko. Emakumezkoen % 53ko batezbestekoa oinarri hartuta, garrantzitsuenen artean gainfeminizazioagatik nabarmentzen diren jatorriak daude, hala nola Erdialdeko Amerikakoa (% 71,8) edo Hego Amerikakoa (% 60,2), eta, bete muturrean daude, aldiz, Pakistan (% 22,6) eta Magreb (% 35,1) eta gainerako Afrika (% 35,2), oso eredu maskulinoarekin. Bi muturren artean daude gainerako jatorrizko eremuak, *12. grafikoa*.



12. Grafikoa
Jatorriz atzerritarrak diren biztanleen feminizazioa Bizkaian,
jatorrizko eremuen arabera, **2019, ehunekoak**

Hala ere, erretratu hori argiago ikusten da Euskadin finkatutako atzerritar jatorriko emakumeak jatorrizko zer eremutatik datozen aztertzen dugunean (13. grafikoa). Hala, % 45,3 hegoamerikarrak dira eta % 12,9 Erdialdeko Amerikakoak. Bi jatorrien artean, hamar emakumetik ia sei. Beste era batera esanda, jatorri jakin batzuen feminizazioari jatorri horiek Bizkaian bizi diren emakume guztiekiko duten pisua gehitzen zaio. Hau da, haren garrantzia biderkatu egiten da. Biribilduz, Bizkaiko atzerritar jatorriko biztanle guztien % 31 Erdialdeko Amerikakoa edo Hego Amerikakoa da.




13. Grafikoa
Atzerritar jatorriko emakumeen jatorrizko eremuak Bizkaian, 2018, ehunekoak

Datu hori alderdi sozio-territorialetik begiratuta ere ikusten da; izan ere, **Latinoamerikako biztanleriaren ehuneko handiena dagoen tokietan da garrantzitsuena zaintza-sektorea**. Kasu honetan, Bizkaiko lurralde historiko osoko ereduaz ari bagara ere, Bilbo eta Eskuinaldea nabarmentzen dira: Bilboko erdiguneko Abando barrutian dago feminizazio-ehunekorik handiena atzerritar jatorriko populazioan, % 60,4. Antzekoa gertatzen da Getxon ere –% 57,5–, Eskuinaldeko azpieskualdean txertatua,

baita Bizkaiko hiriburuko beste barruti batzuetan ere (14. grafikoa). Barruti horietako batzuek bi modutan jarduten dute: jarduera-leku gisa eta/edo bizileku gisa. **Feminizazioa jaitsi egiten da** bizileku-eredua nagusi den heinean edo **Bilbotik fisikoki urrundu ahala**. Bilbo-Getxo ardatzak zirkulu zentrokideen multzo baten nukleo gisa funtzionatuko luke, eta haietan feminizazioa jaisten joango litzateke, baina inoiz ez gehiegi, Bizkaiko atzerritar jatorriko biztanleria feminizatuta baitago.

14. Grafikoa

Biztanleria osoaren eta atzerritar jatorriko biztanleriaren sexuaren arabeko banaketa, Bizkaiko eskualdeen eta Bilbo Handia azpi-eskualdeen eta barrutien arabera, **2019, ehunekoak**




Azkenik, atal honetan interesgarria da ikustea **immigrazioaren euskal ereduak immigrazio feminizatuaren eredu baterantz jo duela**. Iritsitako urtearen arabera nazionalitateen feminizazio-maila gero eta handiagoari erreparatzen badiogu, ikusten da prozesua areagotu egin dela pixkanaka, eta, halaber, ikusten da aurreko nazionalitateen ordezkapena hartzen duten nazionalitateek, garrantziari eta

kronologiari dagokienez, emakumeen barne-tasa handiagoa dutela. Nikaraguako kasuan, hamarretik ia zortzi. Gainera, prozesu horretan, hasierako tasak handiagoak izan ohi dira, baina, urteak joan urteak etorri, familiaren finkapenean urteak pasatzen direnean eta berrelkartzeen ondorioz, arindu egiten dira (15. grafikoa).

15. Grafikoa


Egungo feminizazio-tasa, nazionalitatearen iritsiera-urtearen hasieraren arabera, **2019, ehunekoak**



Azkenik, Bizkaiari finkatutako hogei nazionalitate garrantzitsuenen feminizazio-maila gehitu dugu, 16. grafikoa.


16. Grafikoa

Bizkaiari 1.000 pertsona baino gehiagoko ekarpena egiten dute nazionalitateen feminizazio tasa, 2019, ehunekok



Xehetasun garrantzitsuak eta alderdi interesgarriak

Bizkaiari, nazionalitate garrantzitsuena Kolonbia da, 11.887 pertsonarekin, **ondoren Maroko** (11.633) **eta Errumania** (11.119). Ondoren, kontinente guztietako nazionalitateak ditugu, baina nabarmentzekoak dira Erdialdeko Amerikakoak eta Hego Amerikakoak: Bolivia (9.874), Paraguai (5.308), Nikaragua (4.962), eta Venezuela (4.830), oso berria den fenomenoak. 17. grafikoa eta 5. taula.



17. Grafikoa

Bizkaian atzerritarren ekarpen-handiena egiten duten nazionalitateak, **2018, zifra absolutuak**


Nazionalitatea	Sexua			
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	%
Kolonia	4.785	7.102	11.887	10,3
Maroko	7.568	4.065	11.633	10,1
Errumania	5.418	5.701	11.119	9,6
Bolivia	3.836	6.038	9.874	8,5
Paraguai	1.545	3.763	5.308	4,6
Nikaragua	1.042	3.920	4.962	4,3
Venezuela	2.240	2.590	4.830	4,2
Txina	2.016	2.143	4.159	3,6
Ekvador	1.773	2.038	3.811	3,3
Brasil	1.068	2.469	3.537	3,1
Senegal	2.693	566	3.259	2,8
Peru	1.239	1.640	2.879	2,5
Argentina	1.282	1.371	2.653	2,3
Frantzia	1.168	1.361	2.529	2,2
Portugal	1.311	945	2.256	2,0
Honduras	517	1.527	2.044	1,8
Kuba	753	1.229	1.982	1,7
Nigeria	919	958	1.877	1,6
Aljeria	1.149	653	1.802	1,6
Pakistan	1.143	334	1.477	1,3
Dominikar Errep.	483	810	1.293	1,1
Alemania	616	623	1.239	1,1
Mexiko	459	721	1.180	1,0
Erresuma Batua	622	479	1.101	1,0
Rusia	416	574	990	0,9
Gainerakoak	8.289	7.716	16.005	13,8
Guztira	54.350	61.336	115.686	100

4. Taula


Bizkaian atzerritarren ekarpen-handiena egiten duten nazionalitateak sexuaren arabera, **2018, zifra absolutuak eta ehunekak**

Bizkaiko biztanle atzerritarren ehunekorik handiena Berriatukoa da (% 18,0).

Jarraian, ikusten dugu atzerritar jatorriko biztanleen tasarik handienak Bizkaiko immigrazio-sistemarekiko periferiko samarrak diren udalerrri txikiei dagozkiela. Izan ere, atzerritar jatorriko biztanleen % 10 gainditzen duten 22 udalerrrien artean, oso garrantzitsuak diren batzuk daude, Bilbo (% 12,8), Barakaldo (% 10,4), Getxo (% 10,6), Durango (% 11,2), Sestao (% 10,2), baina baita eta tamaina ertain eta txikiko beste udalerrri batzuk ere, non atzerritar jatorriko biztanleen presentzia kopurutan handia izan ez arren tasa handia eragiten baitute (18. grafikoa).





Eta, horregatik, immigrazioaren ehunekoak ez dator nahitaez bat udalerrietan bizi den atzerritar jatorriko biztanleriaren bolumenarekin. Bolumenaren arabera, Bilbo nabarmentzen da, bertan bizi baita guztizkoaren % 38,5. **Bilbok, Barakaldok eta Getxok atzerritar jatorriko biztanleen % 55 biltzen dute, eta Bizkaiko populazio osoaren % 46.** Gero, distantzia handira, euskal parametroetarako tamaina ertain-altuko udalerriak direnak datoz, hala nola Basauri, Durango eta Portugalete. 19. grafikoa.



Hamaika nazionalitate garrantzitsuenen lurralde-banaketa aztertuz gero, kokaleku garrantzitsu batzuk ikusiko ditugu (20. grafikoa):

- **Bilbok atzerritar jatorriko biztanleriaren ia % 39 hartzen du**, eta ehuneko hori handiagoa da **Erdialdeko Amerikako edo Hego Amerikako nazionalitate gehienei** dagokienez, bai eta **Txinako nazionalitatea** dutenei dagokionez ere. Aldiz, errumaniar, senegaldar, brasildar edo marokoar biztanleen ehuneko txikiagoa hartzen du.
- **Ezkerraldean** (guztizkoaren % 17 da), **paraguaitar, marokoar edo venezuelar nazionalitatekoen presentzia handiagoa dago**, eta boliviarr nazionalitatekoen txikiagoa.

- **Eskuinaldean** (guztizkoaren % 12 da) **Boliviako eta Paraguaiako pertsona gehiago daude**, eta Senegalgo edo Marokoko biztanle gutxiago.
- Azkenik, **Durangaldea, Gernika-Bermeo eta Ondarroa ardatzean errumaniar asko daude**, eta batez ere **Senegalekoak** Ondarroan.
- Hau da, migrazio-sistema baten barruan, jardueralderdiei (zaintzak, industria, arrantza) erantzuten dieten azpisistema esanguratsuak daude, eta lurraldea osaera desberdinetan segmentatzen dute. Horrenbestez, ezaugarri berezi horiek kontuan hartu behar dira, eskualdeen edo azpieskualdeen arabera aniztasunari arreta emateko.



20. Grafikoa
Bizkaiko 10 nazionalitate nagusien banaketa eskualdeen arabera, **2019, ehunekoak**

Espainiar nazionalitatea lehenik lortzen duten kolektiboak **Erdialdeko Amerikakoak eta Hego Amerikakoak** dira, nazioko eta nazioarteko legediaren ondorioz. Jatorri horietakoak direnen artean, **% 60 inguru biztanleria nazionalizatua da**. Kasu batzuetan, Bizkaian bizi diren nazionalitate horietako hamar pertsonatik seik edo zazpik lortu dute nazionalitatea (21. grafikoa). Beste batzuk horretarako hasierako urratsetan edo prozesuan daude, Nikaragua, Honduras edo Paraguai kasu. Interesgarria da Ekuadorren kasua ikustea

(hasierako hiru nazionalitate garrantzitsuenetako bat da): herrialde horretatik etorritako lautik hiruk espainiar nazionalitatea dute jada. Kolonbiak egoera berean egon beharko luke, baina Kolonbiako kasuan migrazio-fluxuak berrabiarazi egin dira 2014tik aurrera, eta aspalditik gure artean ditugunekin batera, duela oso gutxi hemen kokatu diren kolonbiarrak daude. Ekuadortarrekin, ordea, ez da halakorik gertatu, aspalditik baititu geldirik migrazio-fluxuak, Euskadi helburu dutenak-



21. Grafikoa
Bizkaian biztanle-ekarpen handiena egiten duten hogeitaz nazionalitateen nazionalizazio-tasa, 2019, ehunekoak

Bestalde, nahiz eta aspaldian etorritakoak izan, **zenbait jatorri edo nazionalitateetakoak**, hala nola **Maroko** (% 16,6), **Aljeria** (% 11,9) eta **Senegalekoak** (% 10,6), **agerian jartzen dute herrialde horietako jatorrizko pertsonentzat nazionalitatea lortzeko izapideak zeinen zail, luze eta garesti diren**. Azken horien artean daude, halaber, Txina (% 11) eta Pakistan (% 7,5) ere. Datu orokor horiek erakusten digute immigrazioa astiro egokitzen den prozesu bat dela: batetik, helmugako gizartean zehazten ari diren premiak daude; bestetik, premia horiek ase ditzaketen kolektibo potentzialak, eta horrez gain, bidean hobeto edo okerrago gainditzen ari diren zailtasun administratibo, legal eta material guztiak. Baina, era berean, **zaurgarritasun-kate ikusgarriago** bat dagoen bezala, **erregular bihurtzeko-continuum ikusezino** bat dago.

06 Biztanleriaren, nazionalizazioen eta adinaren tipologia

Esan bezala, atzerritar jatorriko biztanleria gero eta dibertsitate handiagokoa da, eta harrigarria da Espainian jaio eta atzerrian jaiotako populazioa azpizatitzea, (azken horiek atzerritarrak edo espainiarrak izan daitezke). Hiru egoera daude. Honako hauek, hain zuzen ere:

1

Atzerrian jaio direnak eta atzerritarrak izaten jarraitzen dutenak

2

Atzerrian jaio eta espainiar nazionalitatea lortu dutenak

3

Espainian jaio direnak eta atzerritarrak izaten jarraitzen dutenak


Orain, hiru egoera horiekin zerikusia duten gai batzuei erreparatu nahi diegu.

Espainian jaio eta oraindik atzerritarrak direnen azken kategoria horren ezaugarriak adieraziko ditugu, lehendabizi. **Bizkaian, 7.132 pertsona dira.** Zifra ez da oso handia, baina bai esanguratsua; izan ere, nazionalizatu direnen ondorengoekin batera, eta hasieratik eroldan espainiar herritar gisa agertzen direnekin batera, hemen espainiar nazionalitatearekin jaio delako, immigrazioak familia-izaera duela eta biztanle egoiliarrek behin betiko Bizkaian edo Euskadin bizitzen jartzeko borondatea dutela adierazten du. Izan ere, **Eusko Jaurlaritzak atzerriko etorkinei egiten dien inkestaren arabera (EABI, 2018), % 90ek baino gehiagok behin betiko hemen ezartzea erabaki du.**

7.132 pertsona horiek bost kontinenteetako nazionalitateetakoak dira, baina egokia da atzerritar jatorriko populazio osoaren jatorria azpikolektibo horrekin –Espainian jaio eta atzerritarra izaten

jarraitzen duen populazioarekin, alegia– kontinenteen arabera alderatzea, egoera hori zerk azaltzen duen aztertzeko.


Harrigarria da atzerritar jatorriko biztanleen % 51,4 jatorri amerikarreko izanda, % 14,9 soilik izatea Espainiako nazionalitatearik gabe jaiotakoen artean (22. *grafikoa*). Eta kontrako kasua batez ere afrikarrei gertatzen zaie: atzerritar jatorriko biztanleen % 20,6 izanda, hemen jaio eta nazionalizatu gabeen % 38,1 dira. Eta europarrekin antzekoa gertatzen da, kopuru horiek % 20,8 eta % 31,7 baitira, hurrenez hurren. Baina afrikarren eta europarren egoera oso desberdina da. **Europar asko, Europar Erkidegokoak, ez dira nazionalizatzen, ez dutelako behar edo ez zaielako interesatzen,** europar herritarrak direlako. Jatorriko nazionalitateari eusten diote. Aldiz, **afrikarrek eta asiarrak** –% 7,0 eta % 13,8, hurrenez hurren– ere **legezko mugak dituzte, eta ezin dute espainiar nazionalitatea eskuratu,** edo oso prozesu luzea dute hori lortzeko.



22. Grafikoa
Atzerritar jatorriko biztanleria osoa eta Espainian jaiotakoa, nazionalitatearen kontinentearen arabera, **2019, ehunekoak**

Nazionalitate-azpideremuen arabera zehaztuz gero, oraindik gehiago findu dezakegu egoera hori, Bizkaian nazionalitate-eremu bakoitzak duen pisua eta eremu horretan jaio eta atzerriko nazionalitatea dutenak erlazionatuz (23. grafikoa). Batez ere, asimetria aipagarriak interesatzen zaizkigu, bai goitik, bai behetik. Hala, EB28n nabarmentzen da: errumaniar jatorriko pertsonak % 9,8 dira, eta atzerritar jaioberrien % 23. Antzekoa gertatzen da afrikarrekin eta txinatar jatorrikoekin ere. Aldiz, alderantzizko egoeran daude Latinoamerikako biztanleak, bai Erdialdeko Amerikakoak, bai Hego Amerikakoak

23. Grafikoa
Atzerritar jatorriko biztanleria osoaren eta Espainian jaio baina atzerriko nazionalitatea duten biztanleen azpitaldekoen banaketaren arteko alderaketa, **2019koa, ehunekoak**



Beheko taulan, egoera hori bera ikus dezakegu: egoera horrek nazionalitate-eremu bakoitzean zer ehuneko duen. Eta berriz ere nabarmentzen dugu ekarpen-bolumen handiena dutenak eta egoeraren barne-eragin handiena dutenak (5. taula).

	Biztanleak, nazionalitate-eremuaren arabera	Atzerriko nazionalitatea dutela jaiotakoak	Eremuarekiko duten ehunekoa
EB 25	9.438	479	5,1
EB 28	11.378	1.637	14,4
Gainerako Europa	3.239	143	4,4
Magreb	13.788	1.588	11,5
Gainerako Afrika	10.001	1.130	11,3
Iparamerika	2.256	31	1,4
Zentroamerika	11.028	229	2,1
Hegoamerika	46.145	806	1,7
Txina	4.159	747	18,0
Pakistan	1.477	117	7,9
Gainerako Asia	2.417	120	5,0
Ozeania eta herringabeak	360	105	29,2
Guztira	115.686	7.132	6,2

5. Taula

Atzerritar jatorriko biztanleria osoaren eta Espainian jaio baina atzerriko nazionalitatea duten biztanleen azpitaldekoen banaketaren arteko alderaketa, **2019koa, ehunekoak eta zifra absolutuak**


Egoera beste ikuspegi batetik aztertzeke, jatorrizko eremuek duten barne-nazionalizazioaren tasa emango dugu. Datuek ez dute zalantzarik uzten jatorrizko eremu garrantzitsuetan, batez ere, eta orain arte esandakoa berresten digute.

Eta ez dugu ahaztu behar **Bizkaian finkatutako atzerritar jatorriko populazio osoaren nazionalizazioaren batez bestekoa % 32,4 dela**; hau da, hiru pertsonatik bat.

Baina ohartarazi behar da atal honetan **garrantzitsuena** eta nazionalizatuena **Hego Amerikako biztanleria** dela, biztanleria osoaren % 48,8 jada nazionalizatuta baitago (24. grafikoa). Jarraian, **Europako eremuak** ditugu, errumaniarra izan ezik, **industrialena** eta berriena baita, eta, adierazi dugun bezala, ez du nazionalizatzeko beharrik ikusten. Haien % 1,4k soilik du nazionalitate espainiarra.

24. Grafikoa


Jatorri atzerritarreko biztanleriaren nazionalizazio-tasa Bizkaian, jatorrizko eremuaren arabera, **2019, ehunekoak**



Hala ere, lau jatorri erabakigarritara itzuliz, bai bolumenaren aldetik, bai garrantziaren aldetik, Magrebeko (% 16,3), Saharaz hegoaldeko Afrikako (% 15,1), Txinako (% 11) eta Pakistango (% 7,5) herritarren nazionalizazio-tasak ditugu. Lau azpikolektibo horiek hegoamerikarrarekin alderatzen baditugu (haiek baino geroago etorri dira), ikusiko dugu jada % 24,4 nazionalizatuta dagoela. Eta, beraz, eztabaida ez da gure migrazio-ereduan zein den biztanleria hobetsia eta zein jatorri lehenesten diren, hemen denbora luzeagoa daramaten beste batzuek ez aurrera ez atzera jarraitzen baitute nazionalizazioari dagokionez.

Era berean, oso datu argigarri bat ere ematen dugu, Euskadiko biztanleriaren adin-egiturari buruzkoa, zenbait egoera aintzat hartuta. Datu horrek erakusten du Euskadin jaio baina oraindik atzerriko nazionalitatea duten biztanleak oso gazteak direla.


Bizkaiko 18 urtetik beherako atzerritar jatorriko biztanleria osoa % 15,8 da, Espainiako populazio autoktonoaren antzeko ehunekoa, baina **hemen jaio eta atzerriko nazionalitatea duen populazioa aintzat hartuta, % 94 da.** Hau da, hemen kokatuta dagoen biztanleria da nabarmen (25. grafikoa). Are gehiago, bitxia da ikustea atzerrian jaiotako biztanleak direla, nazionalizatuak zein oraindik ere atzerritarren direnak, ehunekorik txikiak dituztenak; izan ere, egiturako ehunekorik handienak lan-adinari dagozkionak dira, 25 eta 44 urte bitartekoak, eta neurri txikiagoan 45 eta 64 urte bitartekoak, eta 65 urtetik gorakoak, berriz, ehuneko oso-oso txikiak dira.



25. Grafikoa
Bizkaiko biztanleria osoa, eta jaiotze-lekuaren eta nazionalitatearen eta adinaren arabera, 2019, ehunekoak

Amaitzeko, azken grafiko hau emango dugu, Bizkaiko atzerritar jatorriko biztanleriaren egoerari buruzko atal honetan eta erretratu honetan esandakoa laburbiltzen duena: biztanleria potentzialki aktiboa % 63,2 da Bizkaia osoan, eta bertako pertsonen dagokienez ehunekoak % 61era jaisten da; ikusi dugun bezala praktikan hutsala da hemen jaio baina atzerriko nazionalitatea dutenen artean –% 6,2–; eta nabarmen hazten da nazionalizatuen artean

(% 85), eta are gehiago atzerriko nazionalitatea dutenen artean % 90,3. Azken bi **datu horiek adierazten dute** zein den euskal biztanleriak egiten duen hautua eta zein den, bestalde, **migrazio-mugikortasunaren azken arrazoa: enpleguaren munduan sartzea eta bizitza nahiko duina izatea**, bai mugimendu horien protagonisten aldetik, bai haien ondorengoen aldetik. Eta desio hori bertakoenen antzekoa da, eskuarki (26. grafikoa).



26. Grafikoa
Bizkaiko biztanleria osoa, eta jaiotze-lekuaren eta nazionalitatearen eta adin-egituraren arabera, 2019, ehunekoak






02.

Gernika — Lumo

2019ko urtarrilaren 1ean, azken errolda-datu ofizialen egunean, **Gernika-Lumon 17.016 pertsona bizi ziren, eta horietatik 2.282 atzerritarrak edo atzerrian jaiotakoak ziren**. Udalerriko biztanleen % 13,4 dira. Jatorriz atzerritarrak diren pertsonak esaten diegu; izan ere, udalerriko biztanleen gero eta dibertsitate handiagoaren kudeaketak ezin digu ahaztarazi posible dela Euskadin jaio arren oraindik atzerriko nazionalitatea duten pertsonak egotea, edo, alderantziz, atzerrian jaiotako pertsonak jada espainiar nazionalizatu gisa agertzea erroldan, eta, beraz, ez agertzea atzerritar gisa.

Horrenbestez, Gernika-Lumo biztanleria honela banatzen da: gehienak Espainian jaiotakoak dira, espainiar nazionalitatea dute, eta populazioaren % 86,6 osatzen dute. Hori da, oro har populazio autoktonoa, bertakoa esaten zaiona, *hemengoa*.

Horrez gain, beste populazio autoktono bat ere badago, hori ere *hemengoa*, 246 pertsonak osatzen dutena, udalerriko populazio osoaren % 1,4. Espainian jaio arren, oraindik atzerritar moduan jasota daude, normalean espainiar nazionalitatea eskuratu ez duten gurasoen seme-alabak direlako. Horietatik gehienak afrikarren ondorengoak izaten dira, bai magrebtarrak, bai Saharaz hegoaldeko Afrikakoak. Eta, izan ere, afrikarrek oso zailtasun handiak dituzte espainiar nazionalitatea lortzeko. Antzekoa gertatzen zaie asiarrei.



Gernika-Lumo, nazionalitatearen eta sorterriaren arabera. **Zifra absolutuak eta ehunekoak, 2019**

Egoera horren beste aldea ere badugu; hots, **atzerrian jaio arren Espainiako nazionalitatea eskuratu dutenak**, zehazki **507 pertsona**, hau da, udalerriko biztanleria osoaren % 3,0.

Azkenik, **Gernika-Lumon bizi diren 1.529 pertsona atzerrian jaiotakoak dira eta atzerritarrak izaten jarraitzen dute**, eta biztanleriaren % 9 osatzen dute. Gernika-Lumon, atzerritar jatorriko biztanleriaren ehuneko osoa esanguratsua da Euskadin, eta atzerritartasun-tasa handien artean dago.

Jaiolekua / Nazionalitatea	K.			%			
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Guztizkoaren gaineko %
Espainia / atzerritarra	129	117	246	52,4	47,6	100	10,8
Atzerria / atzerritarra	749	780	1.529	49,0	51,0	100	67,0
Atzerria/ espainiarra	210	297	507	41,4	58,6	100	22,2
Guztira	1.088	1.194	2.282	47,7	52,3	100	100,0

Atzerritar jatorriko biztanleria, sorterrria, nazionalitatea, sexua eta guztizkoarekiko pisua, **2019, zifra absolutuak eta ehunekoak**


Gernika-Lumon bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen % 10,8 Gernika-Lumon edo inguruetan jaiotakoak eta atzerriko nazionalitatea dutenak dira; % 67, berriz, atzerrian jaio eta oraindik ere atzerritarrak direnak dira; eta % 22,2 nazionalizatuta daude. Gernika-Lumon bizi den populazioaren nazionalizazioa legokiokeena baino txikiagoa da, Errumaniako populazioa oso garrantzitsua delako, eta Europako Erkidegokoa denez, ez duelako nazionalizatzeko beharrik.

Biztanleria feminizatua da (% 52,3 emakumezkoak eta % 47,7 gizonezkoak), baina berriz ikusten ditugu leku askotan errepikatzen diren ezaugarri orokor batzuk:

1. Espainian jaiotako biztanle gehienak gizonezkoak dira,
2. baina atzerrian jaio eta atzerritarrak izaten jarraitzen dutenen edo nazionalitatea hartu dutenen artean, emakumezkoak dira nagusi; % 51,2 eta % 58,6, hurrenez hurren, eta feminizazioari eutsi edo handitu egiten dute. **Hau da euskal gizarteak nahi duen eta aukeratu duen immigrazioa emakumezkoena da, oro har, immigrazio feminizatua, alegia.**

Gernika-Lumo Bizkaiko jatorri atzerritarreko biztanle-osaeraren erduetako bat da, eta **Gipuzkoako Goierrikoaren antza du neurri batean**. Atzerritarren % 44,3 errumaniarra da (UE 28), % 19 hegoamerikarra, % 7,5 erkidegoaz kanpoko Europakoa, eta, azkenik, garrantziaren hurrenkeran, Erdialdeko Amerikakoak ditugu, % 7,5ekin. Aipagarria da azpimarratzea, halaber, % 4,7 estatubatuar jatorrikoak direla. Laburbilduz, **Gernika-Lumon bizi diren biztanleen erdiak Errumaniatik eta Ekialdeko Europako gainerako herrialdeetatik datoz, eta EBko gainerakoetatik datozenak baino gehiago dira**. Gernika-Lumon ez da gertatzen Bizkaian Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako biztanleek duten nagusitasuna.

Sexuaren eta zonen arabera, **gizonezko errumaniarrak gehiago dira emakumezkoak baino** (% 46,3 vs. % 42,4), eta ameriaren artean kontrakoa gertatzen da.



Gernika-Lumon jatorriz atzerritarren diren biztanleak, jatorriaren eta sexuaren arabera, **2019, ehunekoak**

Azkenik, **Gernika-Lumon 69 nazionalitateetako biztanleak daude**, baina haietako batzuetakoak gutxi batzuk besterik ez dira. Zehazki, 34 herrialdek bost pertsona baino gutxiagoko ekarpena egiten dute, eta, gero, bitxia bada ere, beste muturrean, **Errumaniak bakarrik atzerritar jatorriko biztanleriaren ia erdia, 1.010 pertsona**, hau da, % 44,3.

Nazionalitate-kopurua eta tamaina Gernika-Lumon, **2019, zifra absolutuak**

Pertsona-kopurua	Herrialde-kopurua	Pertsonak
Pertsona bakar bat	18	18
Bi pertsona	6	12
Hiru pertsona	8	24
Lau pertsona	2	8
5etik 9ra	4	31
10etik 50era	21	533
51-100	9	646
1.000 baino gehiago	1	1.010
Guztira	69	2.282

Hori dela eta, **Gernika-Lumoko biztanleriaren osakeraren egiturak beste eredu batzuk hausten ditu**, eta Bermeo-Zornotza-Durango ardatzak osatzen duenaren antzekoa da: Europa erdialdekoak dira ugariena, erkidegokoak gehienak eta erkidegotik kanpokoak. Eta, esaterako, **bigarren herrialdea Moldavia da**, 89 pertsonarekin.


Errumaniarren presentzia hain da erabakigarria, non atzerritar jatorriko biztanle guztien osaketa baldintzatzen baitu, baita sexuaren arabera ere, eta ikusten da gainerako nazionalitateak feminizatuagoak izan ohi diren arren, industria-sektoreak eta errumaniar biztanleriaren kontzentrazioak, zerbitzuen sektorerara egokitutakoak, baldintzatzen duela eredu oro har feminizatu. Kontuan izan behar da sexuaren araberako berdinketa dagoela ia jatorri errumaniarreko biztanleen artean.



	K.			%			Gutzizkoaren gaineko %
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	
Errumania	504	506	1.010	49,9	50,1	100	44,3
Moldavia	40	49	89	44,9	55,1	100	3,9
Argentina	41	44	85	48,2	51,8	100	3,7
Brasil	37	45	82	45,1	54,9	100	3,6
Bolivia	26	53	79	32,9	67,1	100	3,5
AEB	34	38	72	47,2	52,8	100	3,2
Ukraina	23	41	64	35,9	64,1	100	2,8
Txina	33	29	62	53,2	46,8	100	2,7
Ekuador	23	35	58	39,7	60,3	100	2,5
Australia	29	26	55	52,7	47,3	100	2,4
Maroko	27	21	48	56,3	43,8	100	2,1
Aljeria	18	21	39	46,2	53,8	100	1,7
Pakistan	33	5	38	86,8	13,2	100	1,7
Kolonia	10	23	33	30,3	69,7	100	1,4
Senegal	30	3	33	90,9	9,1	100	1,4
Mexiko	12	20	32	37,5	62,5	100	1,4
Venezuela	12	19	31	38,7	61,3	100	1,4
Nikaragua	3	26	29	10,3	89,7	100	1,3
Peru	9	20	29	31,0	69,0	100	1,3
Kuba	9	19	28	32,1	67,9	100	1,2
Paraguay	11	15	26	42,3	57,7	100	1,1
El Salvador	11	15	26	42,3	57,7	100	1,1
Frantzia	13	11	24	54,2	45,8	100	1,1
Portugal	12	10	22	54,5	45,5	100	1,0
Gainerakoak	88	100	188	46,8	53,2	100	8,2

Hogei pertsona baino gehiago dituzten nazionalitateak Gernika-Lumon, sexuaren arabera, eta gutzizkoarekiko pisua, **2019, zifra absolutuak eta ehunekoak**

Hala ere, beheko grafikoak erakusten du **Errumaniako populazioa hurrengo nazionalitatea baino hamaika aldiz handiagoa dela, eta gainerako nazionalitateak**, berrogeita hamar pertsona baino gehiago dituzten batzuk izan ezik, munta txikiagoak direla.



Atzerritar jatorriko Gernika-Lumoko biztanleria, hogei pertsona baino gehiagoko nazionalitateen arabera, **zifra absolutuak, 2019**



03.

Zurrumu — rruak

Fenomeno iragankorra al da immigrazioa?

Badirudi ezetz, eta hala berresten dute migrazioetan aditu direnek. Haziz doa Europara joango den immigrazioa, eta, haren ezaugarri nagusia da, lehenik, gure premien arabera aukeratutako immigrazioa bat dela. Eta, bigarrenik, ezin ditugu saihestu Nazio Batuen Populazioaren Dibisioak egindako aurreikuspenak Afrikako biztanleriari buruz, zeina mende amaierarako laukoiztu egingo baita. Izan ere, 1950eko 229 milioi pertsonetatik 2017ko 1.247etara pasatu da dagoeneko. Koronavirusaren ondoko eragin negatiboak oraindik aztertu ezinik, 2017tik Euskadin 10.000 eta 20.000 pertsona inguru lekutu da. 2019an, 19.000.

Guk aukeratzen al dugu immigrazioa?

Jakina. Futboleak bezala, ekipoek dagoen lekuan bilatzen dute behar dutena, beren gaitasun ekonomikoaren arabera. Ezin da ukatu egongo dela **dei-efektutik** zerbait, baina betiere **premia-efektuaren** ondorioz: zer behar duzun, hori eskatuko duzu. Euskadin emakume latinoamerikarrak eskatzen ditugu familia eta zaintza beharrak ase ditzaten, eta gizon latinoamerikarrak zerbitzuen sektorerako. Erdialdeko Europako pertsonak ere behar ditugu, batez ere Goierri aldean. Populazio txinatarra autoerregulatu egiten da. Afrika iparraldekoa edo Magrebekoa gertu dagoelako etortzen da. Saharaz hegoaldeko biztanleriatik, dagoeneko hemen senideak dituzten ausartak iristen zaizkigu.

Gizarte hartzailea itsasargi baten modukoa da?

Itsasargiaren teoria deitu genezakeen hau oso garrantzitsua da migrazioak azaltzeko. Gizarte hartzaileak seinaleak igortzen ditu, eta berak zer etorkin mota nahi lukeen jakinarazten du, betiere seinaleak norabide jakin batzuetara zuzenduta, eta ez beste batzuetara. Hau da, itsasargiak eremu batzuk argitzen ditu, eta beste batzuk ez. Edo eremu batzuk beste batzuk baino gehiago argitzen ditu. Gainera, argiak intermitenteak dira. Jendearen artetik batzuek ikus ditzakete, eta beste batzuek ez hainbeste. Alegia, eremu batzuetara oso nabarmen iristen da, eta trabak edo iragazkiak jartzen dira argia beste leku batzuetara indarrrik gabe irits dadin. Seinale horiek hartzaile potentzialek ulertzen edo deszifratzen dituzte, eta haiek erabakiko dute, azken buruan, egiten zaien gonbita onartzen duten ala ez. Pertsona batzuek erakargarri edo iradokigarritzat jotzen dute gonbita, eta azkenean onartu egiten dute; hala, naturaltasun handiz, guk nahi dugun jendea iristen da hona.



Baina aukeratzan den baino gehiago jasotzen da?

Ez askoz gehiago. Oro har *parra* egiten da. Asko jota, finkatzen den biztanleriaren % 10 inguru ez da hemengo premiek eragindakoa, eta gehiago iristen da bere beharregatik gurengatik baino. Gainerako kasuetan, guk bidalitako seinaleek —zeinak etortzeko zain dauden hautagaiek jasotzen dituzten— agintzen dute. Beti da aurretik etorritako senide bat hurrengoei deitzen diena. Beti izan da horrela. Immigrazioa fenomeno konplikatu da mugitzen den pertsonarentzat, baina funtzionamiendu erraza du. Hemendik eskatu eta jendea iristen da. Deialdia gelditu eta geratu egiten da. Dagoeneko hemen finkatuta daudenek eskuan semaforo bat duten trafikoagente gisa funtzionatzen dute. Ekonomia-goraldietan hona datoz; ekonomia-beheraldietan, geratu egiten dira.

Lan-merkatuak ba al du zerikusirik Espainia immigrazio-herrialde bilakatu izanarekin?

Lehenik, bi gauza gogoratu behar dira. Lehenengoa da **Espainia tradizioz migrazio-herrialdea** izan dela. XX. mendean sei milioitik gora espainiar joan ziren atzerrira beren bizimodua hobetzeko asmoz. Gehienak Latinoamerikara joan ziren hasieran, eta ondoren Europako herrialdeetara, esaterako Alemaniara eta Frantziara. Gerra Zibilaren ondoren, arrazoi politikoak zirela-eta joan behar izan zuten askok. Baina gainerako kasu guztietan, Espainian lanerako aukera gutxi egoteak bultzatuta alde egiten zuten beren herrialdetik enplegu bila.

Gogoratu beharreko bigarren gauza da XX. mendeko laurogeiko hamarkada baino lehen ere iristen hasi zirela Espainiara bi pertsona-fluxu: batetik, europarrak, eguzki bila edota Espainian kokatzen ziren enpresa europarrekin iristen zirenak, eta bestetik, Latinoamerikako diktadoretatik ihesi zetozen latinoamerikarrak. Baina migratzaile haiek ez ziren hona etortzen Espainiako lan-merkatuak aukerak eskaintzen zizkielako.

Baina hau da XX. mendeko laurogeiko hamarkadaren erdialdean gertatu zen aldaketa: Espainian langabe asko izanda ere (hiru milioi inguru), lan-hobi batzuk agertzen hasi ziren, langile espainiarrekin nekez bete zitezkeenak. Adibidez, Almeriako plastikoen azpian egiten zen nekazaritza: lan nekeza zen (eta da), espainiar gutxik onartzen zutena, eta orduan, plastiko haien gainean, Marokoko langileak hasi ziren lurreratzen. Beste adibide bat etxeko zerbitzuaren arlokoa da: landako herrietan jada ez zegoen nahikoa neska gazte prest hirietan lan hori egiteko; orduan hasi ziren iristen Latinoamerikako emakume gazteak. Hala, lan-merkatu espainiarra, lehenbiziko aldiz, etorkinen erakarpen-faktore bat izaten hasi zen, eta Espainia immigrazio-herrialde (ere) bilakatu zen.



Baina Espainian hiru milioi langabe bazeuden, nola da posible lan-merkatuak aukerak eskaintzea atzerritarrentzat?

Hara, bada, eskaintzaren eta eskariaren kontu hori ez delako hain erraza lan-merkatuan, batzuetan hala aurkezten bada ere. Egiaz, Espainian ez zegoen langile faltarik (oro har). Izan ere, hiru milioi langabe zeuden, eta beste hainbat milioi espainiar Europako hainbat herrialdetan ari ziren lanean! Baina **lan-merkatu horretan**, ordea, **desoreka handiak zeuden**. Desoreka horiek gertatzen ziren, esaterako, langileak leku batean bizi zirelako (Extremaduran, adibidez) eta lanpostuak beste leku batean eskaintzen zirelako (Euskadin, adibidez) eta mugikortasun geografiko eskasa zegoelako. Batzuetan, langileek ez zuten enplegu haietan aritzeko behar zen kualifikazioa, eta desoreka sortzen zen. Beste batzuetan, berriz, langile askok errefusatu egiten zituzten lanpostuak, lanen ezaugarriengatik (lan fisiko gogorra, soldata eskasak, ordutegi bereziak, ospe eskasa). Laurogeiko hamarkadako Espainian, desoreka handia zegoen (gero eta handiagoa) langileek lortzea espero zutenaren (gutxi-gehiago arrazoizkoa) eta lan-merkatuak eskaintzen zizkien enpleguen artean.

Eta desoreka hori gertatu zen, gizarte-aldaketa askok eragin zutelako langileek gehiago erreparatzea ea lanpostu hori “desiragarria” ote zitzaien, hau da, erreparatzea ea berentzat lorpen egokia ote zen edo ez. Desiragarritasunaren mailak gora egitea azaltzen duten faktoreetako batzuk dira, adibidez, Espainian urte haietan bizi-baldintzek hobera egin izana eta ongizate-estatua garatu izana, lan-merkatuan sartzen ziren pertsonen hezkuntza-maila igo izana, familia-sareak mantentzea, eta biztanleriaren zati handi batek bere itxaropenak hobetuta ikustea. Dena den, langileen artean lanpostuekiko desiragarritasunaren mailak gora egin bazuen ere, lan-merkatuak eskaintzen zituen enpleguen baldintzak ez ziren hobetu. Horregatik hasi ziren sortzen alde handi samarrak jendeak espero zuenaren eta lan-merkatuak eskaintzen zuenaren artean. Eta horren ondorioz, lanpostu horietako asko etorkin iritsi berriak betetzen hasi ziren.

Etorkinek lanpostuak kentzen dizkiete espainiarrei?

Hori da immigrazioari eta lan-merkatuari buruz hitz egiten denean gehien ateratzen den mitoetako bat. Baina, oro har, esan daiteke etorkinek ez dietela enplegurik “kentzen” espainiarrei. Egia da zenbait kasutan etorkinak (adibidez, europar jatorrikoak eta kualifikatuak) espainiarrekin lehian ari direla, baina etorkin gehienek betetzen dituzten lanpostuak lan-baldintzarik okerrenak dituzten sektoreetakoak izaten dira eta, beraz, haien enpleguak espainiarrenen osagarriak dira, espainiarrak lan-baldintza hobeak dituzten sektoreetara joaten baitira.

Atzerritarrek ez diete espainiarrei lanposturik kentzen, eta hori frogatzeko, esan daiteke **atzerritarren enplegu-tasa handitzeak ez duela berekin ekarri espainiarren langabezia handitzea**. Are gehiago, esan daiteke, 2008ko krisialdia lehertu zenean, Espainiak historian inoiz izan duen etorkin kopururik handiena zuela, eta horrekin batera, espainiarren langabezia-tasa Espainiako azkenaldiko historia ekonomikoko txikiena zela.



Gerta daiteke langileak langabezian egotea eta etorkin gehiagoren beharra izatea?

Bai, lan-merkatuko desorekak eragiten dituzten arrazoiei erreparatzen badiegu. Izan daitezke desoreka geografikoak (leku batean langabeak egotea eta beste batean lanpostu hutsak, eta langabe haiek lekualdatzeko joera gutxi izatea), edo izan daitezke lanpostuetako desorekak (zaharkituta geratzen ari diren lanbideetako langabeak egotea, eta kualifikazio berriak behar dituzten lan-aukerak agertzea, baina horietarako jenderik ez egotea prestatuta), edo izan daitezke lan-baldintzen inguruko desorekak ere (oso baldintza txarrak izanik, langile batzuek nahiago izatea ez onartzea eta langabezian jarraitzea). Kasu horietan guztietan gerta daiteke langile etorkinek lan horiek hartzea, bai lanerako aukerak dauden lekura joatea onartzen dutelako (errazagoa dute, baldin eta Espainiako beste lekuren batean lotzen dituen etxebizitzarik edo familia-sarerik ez badute), bai eskatutako kualifikazioak dituztelako, bai eta lan-baldintza oker horiek onartzen dituztelako ere, beste aukerarik ezean.

Zer diote eskuin mugimendu populistaek immigrazioari buruz?

Immigrazioaren aurkako diskurtsoa da mugimendu hauen programetako puntu gogorrenetako bat. Mugimendu horiek arazotzat hartzen dituzte etorkinak, lau ikuspegitatik:

- 1) Mehatxua direlako ahalik eta nazio-identitate homogeenoa izateko.
 - 2) Kaleetako kriminalitatearen eta segurtasun-faltaren iturri direlako.
 - 3) Langabezia eragiten dutelako (Frantziako Fronte Nazionalak kanpaina bat egin zuen 1978an, lelo hau hartuta: “Milioi bat langabetu sobera dauden milioi bat etorkin dira”).
 - 4) Ongizate-estatuaz baliatzen direlako, eta, horrenbestez, bertakoentzat subsidio eta laguntza gutxiago daudelako.
3. eta 4. puntuei dagokienez, mugimendu hauek “lehenetasun nazionalaren” ideia proposatu dute (FNren “lehenik frantziarrak” ereduari jarraikiz); hau da, lehenetasuna bertakoei ematea proposatzen dute hainbat arlotan: lana, etxebizitza, osasun-laguntza, etab.

Moralari eutsiz, iritzi publikoarekin dituzten harremanetan, gezurra esaten al dute eskumako mugimendu populistek?

Mugimendu hauek, arrazoiari baino, emozioei heltzeko joera dute. Propagandaren “artearen” ohiko baliabidea da; hau da, helburua ez da “egia” lortzea, baizik eta norberaren “egiaz” besteak konbentzitzea. Mugimendu hauek gardenak dira immigrazioari, identitate nazionalari edota tradizioari buruzko proposamenetan, beren gai nagusietako batzuk aipatzearen, baina haien erretorikak herritarren emozioei heltzen die, eta beldurrak sorrarazten dituzte, beldurra etorkinari, “genero- ideologiari” edota, Voxen kasuan, separatismoari, Espainiaren batasunaren aurkako mehatxutzat hartuta. Haientzat, gezurra baliabide paregabea da hainbat gairen inguruko beldurrak pizteko eta elikatzeko, hala nola delinkuentziari eta emakumeen bortxaketei buruzko gaietan, bai eta “gurasoen betoa” eta “berariazko baimena” beharrezkoak izan daitezen gazteek sexu-hezkuntza jasotzeko. Sare sozialak komunikazio-bide pribilegiatuak dira haien mezu propagandistak zabaltzeko.

Nork ematen dio mugimendu hauei? Eta zergatik?

Hautesleek eskumako mugimendu populistei babes emateko arrazoi nagusia **immigrazioaren aurkako erresumina** da, beste kultura batzuetatik datozen pertsonen kultura “nazionala” “desagerrarazten” eta “bertakoei” lana “lapurtzen” dieten aldetik. Espainian, bada beste arrazoi espezifikoago bat, lurraldegatazka, bereziki Kataluniaren eta Estatuaren artekoa, azken urteetan ikusi denez.

Eskuin muturreko mugimendu populisten hautesleak (eta horien buruzagiak), oro har, **gizonezkoak** dira, **langile-klaseko boto-emaeleen ordezkariak handiarekin**, eta goi-mailako ikasketak dituzten ordezkariak txikiarekin. Mugimendu hauek hautesleek lehen bozkatzen zituzten aukerei dagokienez, kolore askotako aukerak ageri dira, herrialde bakoitzeko testuinguru politikoaren arabera (esaterako, lehen alderdi komunista indartsu bat egotea) edo ekonomia-alorreko proposamenen arabera. Frantzia, oso argi dokumentatuta dago botoak Alderdi Komunistatik Fronte Nazionalera joan zirela. Alemaniari dagokionez, 2017ko hauteskunde federalen ondoren egindako azterketen arabera, Alemaniarentzako Alternatiba alderdiak 1.200.000 abstentziona mobilizatzea lortu zuen, eta, horrez gain, beste alderdietako boto-emaeleak erakarri zituen: CDUko 1.070.000 boto-emaele, sozialdemokraten 470.000 boto-emaele, eta Ezkerrako 400.000 boto-emaele. Angela Merkelen Gobernuak bultzatutako migrazio-politikaren aurkako protesta izan zen % 64,2k AfD hautatzeko izandako arrazoiak. Bestalde, Ikerketa Soziologikoen Zentroaren (CIS) 2019ko urtarrileko barometroaren arabera, hauek ziren Voxi botoa emateko asmoa zuten hautesleen jatorriak: % 28,02 PPko boto-emaele ohiak ziren; % 20,25, Ciudadanosekoak; % 16,97, beste alderdi batzuetakoak; % 13,70, abstentziona jotzen zutenak; % 11,25, Unidos Podemosekoak; eta % 1,8, PSOEkoak.

Beldurretik gorrotora

Europar, Estatu modernoaren legitimitatea segurtasuna babesteak dakar; lehenbizi, segurtasun fisikoa, baina baita segurtasun existentziala ere (hala nola gaixotasunaren edo langabeziaren aurkakoa), ongizate-estatuari esker. Eskuin muturreko mugimendu populistek zalantza jartzen dute Estatu segurtasun hori, gaur-gaurkoz, babesteko gai denik. Immigrazioak, kultura judu-kristauaren tradizioetik urrun dauden herrialdeetatik etorritakoak, bereziki, segurtasuna ahuldu du, maila guztietan: fisikoa (delinkuentzia), identitarioa (“oinarri nazionalak” deuseztatzea) eta probidentzia-estatuaren oinarrien ahultzea (etorkinek estatuko baliabideen zati izugarria xurgatzen dute, “bertakoei” kenduz). Diagnosi horren aurrean, mugimendu hauek gorrotoa zabaltzen dute “kanpoko etsaiaren” (etorkinen) aurka, bai eta, kasuen arabera, “barne-etsaiaren” aurka ere (ijitoen eta juduen aurka, edota, Espainiako kasuan, nazionalista katalanen eta euskaldunen aurka). Demokraziaren funtsa gehiengoak gobernatzea da, baina baita gutxiengoaren eskubideak babestea ere. Segurtasuna nahi izatea oso sentimendu gizatiarra da; beraz, bizikidetzak zaindu beharreko balioetatik hartzen badugu, etorkinak gorrotatzea ezin da inoiz konponbide bat izan.

ZAs!

Zurrumurruen | Red Vasca
Aurkako Sarea | antiRumores